

SUHILTZAILEAK: BEHAR DITUGUNEAN, HOR DIRA

·Zuek bai jakin!: Eduardo Aranburu ·Izerdi patsetan: Mikel Rodriguez eta Asier Intsausti ·Boteprontoan: Aritz Egea

Herri Aldizkaria Otamotz


2010eko
urria
160. alea



Herri Aldizkaria
Otamotz.com

Albisteak, bideoak, argazki bildumak, gida, agenda,
inkestak, eztabaidagunea, entzungaiak...
URRET XU ETA ZUMARRAGAKO ATARI DIGITALEAN
BEHAR DUZUN GUZTIA AURKITUKO DUZU!

altia



IKER

Ipeñarieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza- ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

FAGOR



Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Josu Altzelai **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Oihana - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
Suhiltzaileak: behar ditugunean, hor dira
- 09 Argazki zaharra**
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**
Berogailua piztu al duzu dagoeneko?
Sekula baino lehenago piztu duzula uste al duzu?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritziz**
- 16 Klik eta klik**
Jose Luis Garmendia
- 18 Zuek bai jakin!**
Eduardo Aranburu
- 22 Erreportajea**
Jose Maria Busca Isusi: Zumarragako Argiñano
- 24 Erreportajea**
Irakurleek 7,7 puntu eman dizkiote 'Otamotz' aldizkariari
- 26 Izerdi patsetan**
Mikel Rodriguez eta Asier Intsausti: pilotari gazteen eredu
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprotonan**
Aritz Egea



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du. Bestalde, Otamotz Tokikom ekimeneko kide da.

Suhiltzaileak: behar ditugunean, hor dira

Irailean anbulatorioko arduradunarekin hitz egin genuen eta urrian Legazpiko suhiltzaile parkeko sarjentuarekin izan gara, Mikel Zubeldia tolosarrarekin. Berak eta bere kideek Goierri Garaian pizten diren suteak itzaltzeaz gain, hamaika lan ezberdin egiten dute. Urtean 200 alditan baino gehiagotan entzuten da euren sirena hotsa.



Suhiltzaileak, Legazpiko Egizabal baserriko sutea itzaltzen.
Erreportajeko argazkiak: Josu Altzelai.

Zenbat suhiltzaile parke daude Gipuzkoan?

Bederatzi. Zortzi Aldundiarenak dira eta bestea Donostiako Udalarena. Aldundiarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, Donostialdea osorako lan egiten du. Gipuzkoan suhiltzaileak Aldundiaren ardura dira, baina toki guztietan ez da hala gertatzen.

Gipuzkoan nola erabaki zen non ireki suhiltzaile parkeak?

Plana 1987an egin zen zerbitzua sortu zenean. Eskualdeka banatu zen. Bere garaian zentzua izango zuen, baina parke batzuk besteengandik oso gertu daude. Izan ere, garai hartako errepideek eta egungoek ez dute zerikusirik. Zerbitzua sortu arte boluntarioekin lan egiten zen. Egun parkeak mistoak dira: profesionalak eta boluntarioak daude parkeetan.

Zein da boluntarioen egoera?

Geroz eta boluntario gutxiago daude: gaizki gogoratzen ez badut hemen hamabost daude, Ordizian bizpahiru eta Azpeitian zortzi bat. Gainontzeko toki guztietan ez da boluntariorik gelditzen. Legazpikoa Gipuzkoako parke berriena da, 2003an ireki zen, eta horregatik daude inon baino boluntario gehiago. Irteeretara guardian dauden profesionalak joaten dira. Arazoa larria bada boluntarioei ere deitzen zaie. Bilatzailea dute eta guardian daudenak parkera etortzen dira irteeran parte hartzera.

Boluntarioak ere parkean trebatzen al dira?

Bai. Hilean hiru praktika egiten dituzte hemen bertan.

Zer nolakoa da profesionalen eta boluntarioen arteko harremana?

Ez da erraza. Ni neu boluntarioa izanda-

koa naiz. Lehen, orain baino gehiago, boluntarioei txandako suhiltzaile gutxi egotea leporatzen zitzairen. Duela gutxira arte hiru bakarrik ginen eta egun lau. Izan ere, Aldundiari merkeago ateratzen zaio boluntarioa profesionala baino.

Zein da zuen eremua?

Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga: Irizar enpresa ondoko errotetatik hasi eta Udanaraino. Antzuola ez da gure eremuan sartzen, baina bai bertaraino doan errepidea. Gurea da

“Garai batean altzairu

lantegietara asko

joaten ginen,

baina egun, krisia dela

eta, gutxiago”

Gipuzkoako parke txikiena.

Zer baliabide dituzue?

Parke guztietan baliabide berberak ditugu. Bost kamioi ditugu: batek eskailera du, beste batek ura darama, hirugarrena istripuetarako erabiltzen dugu eta laugarrenak, uraz gain, suteetarako tresneria darama. Horretaz gain, todoterrenoak ere baditugu. Bestalde, Aldundiak Gipuzkoa guztiko parkeetan erabiltzen diren kamioi bereziak ere baditu.

Zer diozu eraikinari buruz?

Aldagelak, sukaldea, egongela, gimnasioa, logela, ikasgela eta bulegoak ditu. Parkea oso sinplea da.

Zenbat lagun zaudete lanean?

Lau laguneko sei talde eta bi sarjentu.

Parke guztiak halakoak dira, Irunekoa izan ezik: han taldeak sei lagunekoak dira. Izan ere, haiei irteera gehiago tokatzen zaizkie. Inguru hartan jende asko bizi da, industria asko dago eta gainera A-8 errepidea bertatik pasatzen da. Urtean 1.000 irteera inguru dituzte eta guk, berriz, 200 pasatxo.

Nolakoak dira zuen irteerak?

Inguru hau orekatuena da. Garai batean altzairu lantegietara asko joaten ginen, baina egun, krisia dela eta, gutxiago. Azkenaldian ateak irekitzeko, gas usaina dagoelako... deitzen digute. Txikikeriak. Geroz eta sute eta istripu gutxiago daude. Hori ona da, baina gure lana nahiko aspergarria da halakorik gabe. Jendeak, arazoren bat duenean, 112 telefono zenbakira deitu behar du. Bertako langileek, arazoaren arabera, badakite nor mobilizatu behar den: Osakidetza, Ertzaintza, Udaltzaingoa, suhiltzaileak... Deia Donostiako gure kontrol zentrorra heltzen da eta ondoren ordenadorez dagokion parkeari pasatzen zaio abisua. Alarmak jotzen du, pantaila batean arazoa zein den ikusten dugu, jantzi eta kamioia hartzen dugu.

Zuen lanetako batzuk zeintzuk diren esan duzu. Zer gehiago egiten duzue?

Mendiko erreskateak, elurra kendu, uholdeak daudenean ura atxikatu, haizeak daudenean eroritako zuhaitzak kendu eta teilak lotu, kea edo txinpartak botatzen dituzten koadro elektrikoak begiratu... Ez dakigula nori deitu? Suhiltzaileei deituko diegu.

Nolakoa da zuen lan eguna?

Egunez tokatzen zaigunean zazpi orduko lan eguna dute eta gauez hamar. Astegunetan hiru errelobotara lan egiten

hilabete honetako gaia

dute eta asteburuetan 24 orduko lan eguna dute. Kamioiak eta materiala errebisatzen dituzte, praktikak egiten dituzte, kirola egiten dute... Asteburuetan, berriz, norberak bere zaletasunak lantzeko aukera du: telebista ikusi, irakurri... Zazpi ordu erraz betetzen dira, baina 24...

Legazpin 26 lagun zaudetela esan duzu. Denak hemen ingurukoak al zarete?

Ez. Duela gutxira arte bizilekua parketik 15 kilometro baino gutxiagora edukitzea eskatzen zitzaigun. Baldintza hori kendu egin zuten. Lehen lan orduetatik kanpo

“Gipuzkoan ez dago

emakume suhiltzailerik,

baina azken aldian bi

postua eskuratzetik gertu

izan ziren”

bilatzailea gainean eramaten zuten, baina orain ez. Hiru lanean egoten ziren eta beste hiru lokalizatuta. Egun, esan bezala, taldeak laukoak dira. Urretxu, Zumarraga eta Legazpiko jende gutxi dago. Gehienak kanpotarrak dira, bizkaitarrak ere baditugu. Jendeak ahal duen tokian lan egiten du eta pixkanaka bere etxera hurbiltzen saiatzen da.

Denak gizonetzakoak al zarete?

Bai. Gipuzkoan ez dago emakumezko suhiltzailerik, baina azken aldian biki ia lortu zuten. Gero eta emakume gehiago saiatzen da. Nire ustez suhiltzaile lana egiteko gaitasuna badute.



Zuen lana gogorra dela esango al zenuke?

Orokorrean ez, baina sute handiak esaterako gogorrak dira. Une jakin batzuk bakarrik dira gogorrak: ziklogenesia izan zenean talde bakoitzak zazpi ordu eman behar izan zituen material pisutsuarekin atzera eta aurrera. Fisikoki ondo egon behar da larrialdi une batean zazpigarren pisura material pisutsuarekin korrika igotzeko. Bestelakoan, gogorrena monotonia da.

Zergatik gustatzen zaizue lan hau?

Tentsioa atsegin dut. Sute batera joatea arriskutsua da, baina atsegin dut. Bestelakoan, hemengo lana besteen parekoa da. Dena den, denetik pixka bat jakin behar da: elektrizitatea, gasa, sua,

istripuak, elurteak... Lan oso ezberdinak egitea tokatzen da.

“Jendeak beti berandu

iritsi garela, dena urez

bete dugula, dena

puskatu dugula...

leporatzen digu”

Esker oneko lana al da?

Ez dakit ba... Jendeak beti berandu iritsi garela, dena urez bete dugula, dena puskatu dugula... leporatzen digu.

Askotan mundu guztiak gu baino gehiago dakiela dirudi: “zertan ari zarete hor?”, “hortik ez da”, “horrela ez da egin behar”... sarritan entzutea tokatzen zaigu. Lehen baino gutxiago, ordea. Izan ere, lehen baino hobeto lan egiten da. Dena den, une batzuk esker onekoak dira: istripu batean norbait auto batetik ateratzen dugunean, adibidez.

**Ondo ikusita zaudetela uste al duzu?
Oso ondo bizi zaretela esaten da.**

Hala da. Beti libre daudela esaten diete, baina Gabonetan adibidez, mundu guztia etxean dago bere familiarekin eta beraiek parkean egon beharra dute. Bestalde, egunez libre badaude gauez lan egin dutelako da. Astebete jai badute igandean 24 orduko lan eguna izan dutelako da. Bestalde, suhiltzaileak gazteak eta aktiboak dira. Mendira joatea, eskalatzea, eskiatzea... gustatzen zaie. Beti oporretan daudela dirudi, baina beste lanbide batzuk izango balituzte ere aisialdia hala emango lukete. Suhiltzaile lanak kirol hauek egiteko aukera eskaintzen du eta kirol hauek egiten dituenak suhiltzaile izan nahi du nahikoa denbora izateko. Egia da denbora libre dezente dugula, baina arrisku egoeretan lan egitea tokatzen zaigula ere egia da.

Gehienak gazteak zaretela esan duzu.

Parke honetan bai, baina beste batzuetan ez horrenbeste. Duela hiru urte 59 urterekin erretiratu ahal izatea lortu zen. Horretarako baldintza batzuk bete behar dira. Ordura arte 65 urte bete arte lan egin behar genuen. Gipuzkoako suhiltzaile zaharrenak Irunen daude. Izan ere, bertako zerbitzua Udalarena zen eta ondoren Aldundiak hartu zuen. Beteranoak ezin dira aurrealdean jarri, baina irteeretan



bigarren mailako lanak ere badaude: bonbaz arduratzea, adibidez. 60 urtekoari ezin diozu zazpigarren solairura gaztea

*“Jendea sua bere kabuz
itzaltzen saiatzen da eta
ezin duela konturatzen
denean guri deitzen digu.*

Ordurako berandu da”

bezain azkar igotzea eskatu. Bestalde, suhiltzaile oso gazteak aurkitzea ere arraroa da. Izan ere, hainbat ofiziorekin lotuta

ko probak pasatu behar dira eta horretarako esperientzia beharrezkoa da. Sartu berriek 30 eta 35 urte artean dituzte.

Zer dohain behar dituzue?

Lardaskari samarra izan behar da. Izan ere, elektrizitatea, mekanika, igeltsaritza, zurgintza... probak pasatu behar dira. Bestalde, fisikoki ondo egon behar da. Hemen proba fisikoak ez dira gogorak, baina Bilbon eta Donostian bai. Aldundiaren probetan ezagutzei garrantzia handiagoa ematen zaie.

Noizean behin probak pasatzen al dituzue sasoiari jarraitzen duzuela erakusteko?

Ez. Salbuespenen bat egon daitekeen arren, suhiltzaileak aktiboak dira eta euren burua zaintzen dute.

Jendeari aholkuren bat eman nahi al diozu?

Norbaitek zer edo zer gaizki egin duela-ko ateratzen gara parketik. Jendeak ez du sute arriskua ikusten. Enpresa batzuetan sekulako bolborategiak dituzte. Pentsa, Insalus enpresak ere su hartu zuen! Bestalde, etxebizitzetako instalazio elektrikoetan sekulako txapuzak ikusten dira. Aholkuak? Jendeak zer edo zer arraroa ikusten duenean 112 zenbakira deitu dezala. Gurea doako zerbitzua da. Jendeak oraindik faktura eskatzen digu. Ez dute mugiarazi duten guztia ordaintzeko dirurik... Lau lagun, lau kamioi berezi... Bestalde, jendea sua bere kabuz itzaltzen saiatzen da eta ezin duela konturatzen denean guri deitzen digu. Ordurako berandu da askotan. Batzuei asko kostatzen zaie guri deitzea eta beste batzuek katua nonbaitetik jais-teko deitzen digute! Xelebrekeria asko ikustea tokatzen zaigu. Batzuek giltza etxe barruan utzi dutela esaten digute, baina euren asmoa emazte ohiaren etxera sartzea da.

Zein da gogoratzen duzun irteerarik garrantzitsuena?

2003tik daramat Legazpin lanean, parkea ireki zenetik. Autobidea ireki zenean bihurtune batean hiru lagun hil zirela oroitzen dut. Beste batean Azkoitira bidean, kamioi bati karga erori zitzaion eta beste lagun bat hil zen. Gogorrenak horiek izan dira. Auto istripuak oso gogor-rrak dira. Halakoetan lan egin ondoren mantsoago gidatzen dugu. Dena den, gehien gogoratzen ditudanak lehen istripuak dira. Legazpira etorri aurretik Tolosan eta Ordizian lan egin nuen eta urte haietako istripuak dira gehien gogo-



ratzen ditudanak. Urteak pasatu ahala, *ohitu* egiten gara.

Azkenaldian ez da sute handirik izan.

Ez, urtean pare bat izaten dira eta txikiak. Legazpi, Urretxu eta Zumarraga elkarrengandik oso gertu daude eta sute bat pizten bada berehala heltzen gara. Aldundiaren egitasmoaren helburua hori zen: parke txiki asko egitea istripura edo sutera lehenbailehen iritsi ahal izateko.

Nolatan erabaki zenuen suhiltzaile izatea?

Boluntario bezala hasi nintzen, Tolosan, 1996an. 18 urte nituen eta urte hartan bertan Unibertsitate ikasketak hasi nituen. Egunkarian suhiltzaile boluntario izateko ikastaro bat antolatu zela ikusi nuen eta izena ematea erabaki nuen. Gustatu egin zitzaidan eta oposizioetara

aurkeztea erabaki nuen. 1999an interino hasi nintzen, 2001ean plaza atera nuen eta 2003an sarjentu egin nintzen. Ingeniaritza ikasi nuen, baina suhiltzaile lana bakarrik ezagutzen dut.

Legazpin luzaroan gelditzeko asmoa al duzu?

Oso gustura nago. Gainera, sarjentuok ez dugu besteek bezainbeste aukera mugitzeko. Ordizian bizi naiz, sarjentuok lanpostutik gertu bizi beharra baitugu.


Zuen lanak arrisku puntu bat du. Nola bizi dute ingurukoek?

Arriskua baino txarragoa erreleboetara lan egitea da. Larrialdi bat dagoenean etxetik korrika atera behar dugu eta hori ere ez da gozoa beraientzat. Arriskua badago, baina ez dugu sentitzen. Lan istripuak egon dira, baina ez zaigu iruditzen geure burua arriskuan dagoenik.

1997ko otsaila

Buruko gaitzentzako zentroaren inaugurazioa

Anton Arbulu Zumarragako alkatea, Jabier Otermin kazetaria, Iñaki Azkuna Osasun sailburua eta Iñaki Urteaga kazetaria.



UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 02 15
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
Javier Arratibel
óptica

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com



Ekarri zure argazkiak eta nahi
duzun moduan aterako ditugu:
koadroak, mihiseak, muralak...

Labeaga, 35 Urretxu 943 72 41 60

BIONA

ARROZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bidea - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com

PLAZAOLA ITURGINTZA

Bide-Zar, 5 ZUMARRAGA
☎ 943 72 13 70
Fax: 943 03 75 68



- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

Muntatu e Instalazioak Elctricos

HERCE

Enbrogatzen, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU



Construcciones
MENDIOLA

Labeaga, 9. Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiola@mendiola.com
www.cmendiola.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINAZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13



JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80



alejandra albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga



RESTOBAR

Bidezar 17-ZUMARRAGA-943 53 46 85



MERTZERIA

Sekundino Esnaola, 2 - Zumarraga
Tel. 943 72 05 62

IKER

SUKALDEAK


Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza - ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

Otamotz

Herri Aldizkaria

TOKI APROPOSA DUZU HAUXE ZURE IRAGARKIA JARTZEKO

Oihana - 647 319 757 - beasain@iragarri.net



Otamotz

Herri Aldizkaria

Orain duzu aukera, bat egin gurekin!

ZINTZO-MINTZO ELKARTEKO BAZKIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Zure ekarpenarekin proiektu hauek bultzatuko dituzu: Otamotz, Otamotz.com, Goierriko Hitza, eskualdeko telebista, Kafe Antzokia, Mintzalaguna, Bertso Eskola, Kantu Afaria, Liburu-lanketa, Gazte Lokala, Aisialdia Euskaraz, Normalizazio Plana, hizkuntza eskubideak, sentsibilizazioa...
- Urtean 25 euro.

OTAMOTZ ALDIZKARIKO HARPIDETZA:


- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Urtean 12 euro.

-Ekarri edo bidali postaz zure datuak honako helbidera:

Zintzo-Mintzo elkarte
Labeaga 12, behea (Goierri elkartearen ondoan)
20700 Urretxu


-Posta elektronikoa erabiltzea nahiago baduzu:
otamotz@otamotz.com

<input type="checkbox"/>	ZINTZO-MINTZOKO BAZKIDE EGIN NAHI DUT
<input type="checkbox"/>	OTAMOTZ HARPIDETZA ORDAINDU NAHI DUT
IZEN-DEITURAK	
JAIOTZE DATA	
HELBIDEA	
TELEFONO ZENBAKIA ETA E-MAILA	
EHNA EDO NA	
KONTU KORRONTE ZENBAKIA	



egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal




Birmoldaketa orain

Otamotzeko lagunok, hondamendia gure artean da. 80. eko hamarkadan gure industrietan gertatu bezala, gure mendi eta basoak ere birmoldaketa edo errekonbertsio beharrea dira. Etxeko izozkailuan oraindik hainbat ziza eta onddo zorro ditugun arren, aurreko batean perretxikotara joan eta goizean goiz jaiki —oporretarako hegazkina hartzeko jarri genuen iratzargailua horren zenbaki txikiarekin azkenekoz— eta kotea *pole positionean* aparkatzea lortu ostean —atzetik Hamiltonek 1 Formulatan baino gehiago utzi genituen atzean— gure basoetan eskopeteroen kartutxoak baino ez genituen bildu, eta hori gure inguruko ehiztari guztiek botatako tiro guztietako hondakinak ondo jasotzen dituztela ziurtatu dezakegula. Bueno, egia esatera, gauean afaltzeko *rebueltotxo* baterako lain batu genituen, baino ezin duzue imajinatu garajetik etxe atarira horren saski tristearekin joan beharrak

zenbaitetarainoko mina egin zigun. GPSa, goretex windstopper txamarra eta zepilodun labana erosteak gure kontu korronteari egindakoa baino askoz handiagoa seguru. Argi dago, itsasoan arrainak tonaka jasotzen jarraitzeko pirata artera joan behar izan genuen bezala, gure izozkailu eta ganbarak perretxikoz asetzeko beste latitude batzuetara joaten hasi beharko dugula, hasiera batean eskolarik gabe. Bitartean, eta Antioko megaproiektua momentuz geldirik dagoenez —azkenean gaueko konspiradore batek aspaldi esandakoa egia izango da eta ez da ezer egingo ez dagoelako dirurik— bi proposamen jaurtiko ditugu hemendik gure baso eta mendiek beharrezkoa duten birmoldaketarako: perretxikoaren parke tematikoa edota azkenaldian horren modan jarri diren mendi lasterketak presartzeko errendimendu altuko zentro berritzailea eraikitzea.

Dagoeneko berogailua piztu al duzu?

Sekula baino lehenago piztu duzula uste al duzu?



Claudio Caballero



Udazken honetan jada piztu dugu. Ez dakit aurreko urteetan baino lehenago izan den, baina goiz samar izan dela iruditzen zait. Iaz beranduago piztu genuen eta gero bost aldiz egin zuen elurra.

Joaquin Hernandez



Oraindik ez dugu piztu, baina pizteko moduko giroa egin du. Normalean urria bukaeran pizten dugula uste dut, baina aurtan apur bat lehenago piztu beharko dugu.

Maria Anjeles Segura



Dagoeneko piztu dut. Joan zen astean piztu nuen lehenengo. Egunean pare bat ordu. Izan ere, nire etxeak Iparraldera jotzen du eta hori kontuan hartu beharrekoa da. Beste batzuek beranduago piztuko dute berogailua.

Jose Genera



Oraindik ez dugu piztu, baina udazkena nola etorri den ikusita, ziur aurki piztuko dugula. Adituek esan dutenez, aurtengo udazkena eta negua gogor samarrak izango dira.


bota bertsoa!

XIX. Lazkao Txiki bertso paper lehiaketa. Gazteen mailan bigarren saria. Bertso sorta osoa www.otamotz.com atarian.

Gaia: Betikoa

Doinua: Habanera

Maialen Akizu




Nahiz eta aspaldi jaso/lehiaketan albistea
alferkerian pasa dut/hilabete ta astea.
Gaurko egunean daukat/bertsotako aldartea,
eguraldia gainera/dugu erabat tristea.
Soilik gaia aukeratzen/nolako buruhaustea
doinu neurri eta errimak/hitzekiko bertutea.
Egin beharra dut bestela/bukatuko zait epea.
Baina askoz errazagoa/da telebista piztea.

EITB nola daukagun/gugandik horren gertuko,
izan nahi nuke Arralden/pasatzen denan lekuko.
Bikoteko maltzurkeri/denei ezin egin uko.
Dirua, arazo goren/xantaietan zenbat truko.
Leonor, Koldo, Andoni/Tximista, Naroa, Urko
Maria Luisa nahiz ta nuen/betik oso gustuko.
Hau amaituta segidan/dut lana gogor hartuko.
Baina badakit ordea/ez dela inoiz bukatuko.

iritziz iritzi

Ibon Garmendia



Borondatea lagun

Gaur plazaratu eta zuenganatu nahi dudan
gaiaz seguru nago behin baina gehiagotan hitz
egin duzuela eta horrez gain seguru nago atze-
ra begira jarriko zaretela esanez... "gure garaian
desberdina zen baina orain baina borondate
gehiagorekin egiten genuen lan...". Kontua da
noizbehinka bidaiatu edota bertara etortzen
diren kanpotarrekin egoten naizenean Euskal
Herrian dugun baloreez jarduten dudala, eta
sari hemen dugun antolaketarako *zaletasuna*
eta bolondres lana eta auzolana goraiatzan
ditudala. Egia da jende asko dagoela hainbat
eta hainbat ekimenetan lanean, baina (adina
izango da) atzera begira jarri eta gauzak alda-
tzen ari direla konturatzen hasita nago. Lanean

laguntzen duena saritzea ondo iruditzen zait,
baina diruz saritzeak talde ikuspegia gero eta
ahulagoa izatea eta nor bere burua salbatzera
joatea ekar dezake. Hau azaltzeko eredu bat
jarriko dut. Koadrilen eguneko bazkarian, diru
apur baten truke, mahaiak eta aulkiak gure zain
ditugu Nire erosotasunak eragina du egun
horretako azken emaitzan: ez daukat goiz jaiki
beharririk, ez dut beste koadrilekin *rozerik* eta
azkenean jaia indibidualagoa da. Kontua ez da
lan hori egiten duena saritzea gaizki dagoela,
baizik eta horren ondorioa ez dudala gustuko.
Egia esan, nahiz eta gaur egungo egoera ez
dudan horren gaizki ikusten, ezkorra naiz etor-
kizunarekiko. Eta zu?



Eraztunen jauna: I Eraztunaren elkarte, II Bi dorreak, III Erregearen itzulera

J. R. R. Tolkien (Euskaratzailea: Agustin Otsa Eribeko)

Nola? Ez dituzula oraindik hiru liburu hauek irakurri? Ez dakizu ze inbidia ematen didazun istorio honetan lehenbiziko aldiz murgiltzeko aukera duzulako! Zer? Ez dituzula irakurri euskaratuak ez zeudelako? Hona hemen abentura fantastikoaren gailurra euskara txukunean, hil aurretik irakurri beharreko epopeia handi eta liluragarria. Tolkienen asmatutako lurraldea, bertako biztanleak (hobbitak, elfoak, orkoak, nanoak, gizo-

nak...) eta gertaerak (boterea ematen duten eraztunen inguruko gorabeherak) ez dira *errealak*, ez, baina hain dira gure antzekoak eta hain ondo lotuta eta kontatuta dago dena.... Frodorekin bidaia osoa egiten baduzu, 1.500 orrialdeak amaitzeaz zaude-nean halako atsekabea sentituko duzu pertsonaia horiei guztiei agur esan behar diezulako. Benetan. Gandalf for president!

Pello Biain



We are standard (2008)

We are standard

Egiten dutena ez da berritzailea, hala iruditzen zaigun arren. Euskal Herrian halako proposamenetara ohituta ez gaudelako izango da. Horregatik, Getxokoak direla jakiten duzunean zur eta lur geratzen zara. Niri, behintzat, hori gertatu zitzaidan. Agian, geure eremuan sortzen den musika beste molde batzuekin lotzen dudalako. Eta We are Standardekoak artistak dira txosnetako (esateko modu bat da) zein Europako klub

cool-enetako musika ezkontzerako orduan. Punk jarrera soinu dantzagarri, bero, ero eta iradokitzaileenekin primeran nahastuta. *The last time* abestiaren klip sensualak eman zien beharreko bultzada 2008an eta orduz geroztik gorako bidean jarraitzen dute. *Modernillo* ospea dutela? Berdin dio. Zoazte haien zuzeneko kontzertu indartsu eta zoro-etako batera eta lehertu arte dantzatu.

Igor Susaeta




Un profeta

Jacques Audiard

Magrebiar jatorriko Malik El Djebena (Tahar Rahim) gaizkile txiki bat da. 19 urte dauzka eta 6 urtetako zigorra ezarri diote Parisko espetxe batean. Analfabetoa da eta inolako babesik ez dauka. Bakartia eta isila da, itxura hauskorra du eta kartzelako indarkeria giroan denbora gutxi iraungo duela dirudi... *Un profeta* Jacques Audiard-en bosgarren luzemetraia da. Oraingo honetan frantziar egileak mafietako giroa deskribatzen du,


arabiar eta korsikar talde itxiena batik bat. Baina honen guztiaren gainetik, filma honen muina gazte baten istorioa da, bere igoera harrigarri eta sinesgaitzarena hain zuzen ere. Aztoratzailea eta tentsioz betea; filmaren helburua Frantziako espetxeen azterketa soziologiko sakona egitea ez bada ere, hauen funtzioa erabat kolokan uzten du. Azaroaren 12an, Zelai Arizti aretoan.

ButaK 21 zineklub taldea



2010eko Euskal Jaiko artisau azoka.

Jose Luis Garmendia



zuek bai jakin!

Eduardo Aranburu: arbasoen jaiotetxearen bila

Eduardo Maria Aranburu Vazquez argentinarra 'Rastreado una huella. 500 años de la familia Aramburu y su árbol genealógico' liburua aurkeztu zuen hilaren 23an Zelai Arizti kultur etxean. Gizon hau bere arbasoen bila hasi eta Zumarragako Aranburuetxeberri baserrira heldu zen.



Zergatik erabaki zenuen liburu hau idaztea?

Ez nuen nire aitona-amonak ezagutzeko aukerarik izan, ni jaio baino dezente lehenago hil baitziren. Hori dela eta, betidanik nire jatorria ezagutzeko beharra sentitu dut. Aitonarengandik hasi nintzen. Nire aitaren jaioterrira idatzi nuen: Zaragozako Almonacid de la Sierra herrira. Han nire aitona, birraitona eta herenaitona datuak aurkitu nituen. Azken hau Beasainen jaio zen. Garai hartan datu hauek guztiak ez zeuden Interneten eta hemengo jendeak herenaitonari buruz zer edo zer ikerzea lortu nuen. Hala, Zumarragara heldu nintzen.

Nolatan?

Nire zazpigarren aitona 1678an jaio zen eta haren aurrekoak Aranburuetxeberri baserrikoak ziren. Ikertzen jarraitu nuen eta bataio-agirien laguntzaz 1521eraino atzera egitea lortu nuen. Urretxuar bati esker Urretxuko sorrera-agiriak lortu nituen eta eurretan agertzen direnen laurdenak baino gehiagok Aranburu abizena dutela ikusi nuen. Familia garrantzitsua zen: asko ziren eta ekimen guztietan parte hartzen zuten. Ondoren, nire 11. aitona (1450ekoa) 1390ekoekin lotzen saiatu nintzen. Horretarako mormoiengana jo nuen, garai hartan eurek bakarrik baitzituzten eskuragarri bataio-agiri guztiak. Mormoiek herrialde askotako agiriak dituzte, baita Errusiakoak ere.

Zer egin zenuen ondoren?

Zumarragako artxiboarekin harremanetan jarri, lehenengoz hona etorri eta liburuak prestatzen hasi nintzen. Izan ere, bildutako informazio hori guztia seme-alabei uztea oso garrantzitsua



Idazlea, liburuaren aurkezpen ekitaldian, Aranburutarrez eta Etxezarretatarrez inguratuta.

dela uste dut. Bilobak ditut, hauek seme-alabak izango dituzte... eta etxe batean arbasoei buruzko informazioa izatea gauza ederra dela uste dut. Denoi, lehenago edo beranduago, nondik gatozen jakiteko gogoia pizten zaigu. Azkar lan egitea erabaki nuen, ni hiltzen banintzen bildutako informazio guztia galdu egingo baitzen. Are gehiago, nire anaia-arreba zaharrenetako batzuk dagoeneko hil dira eta osasunez panggal zegoen anaia bati zirriborroa egin nion. Lan hau guztia esker onekoa izan da.

Zer diozu liburuaren edukiaz?

Egia esan, bilaketari buruzko istorioa da: zer sentitzen nuen ikertzen ari nintzen bitartean. Lan hau bilduma zaleen lanaren antzekoa da: izen bat lortzea zigilu bat lortzearen modukoa da. Mendekotasuna sortzen du. Ikerketan norberak nahi bezainbeste sakondu daiteke. Izan ere, bildu daitekeen izen

kopuruak ez du mugarik. Denok ditugu aitona, birraitona, herenaitona... 30 belaunalditan 2.147 milioi izen ageri direla esaten badut ez didazue sinetsiko, baina hala da. Dena den, normalean ikerkuntzak eten egin behar izaten dira: agiri bat gaizki idatzita dagoelako, eliza batean liburuak galdu zituztelako... Ni, zorionez, 1382ra arte iritsi nintzen. Ohikoa 1500era heltzea da. Horretarako lan asko egin behar da, noski. Zorionez, Gipuzkoako informazio guztia Interneten jarri da eta agirien kopiak ere eskatu daitezke.

Zer gehiago esango zenuke liburuaz?

Bizi izan ditudan esperientziak azaltzen ditu. Aranburuetxeberritik gatzela jakin dut. Baserri honek 500 urte ditu. Bertako nagusiak ezagutu ditut eta hiruzpalau aldiz bisitatu ditut. Maite ditut eta eurek ni ere maite nautela uste dut. Bestelakoan, liburuak informazioa ere

Aranburu familia: Hernan, Laura, Eduardo, Estella eta Martin.



badu. Genealogia lan askotan gizonetzkoen izenak bakarrik jasotzen dira, baina nik oinordeko guztienak jarri ditut: nor-ekin ezkondu ziren, zenbat seme-alaba izan zituzten... Ez dakit zenbat izen ageri diren, baina 1.000 baino askoz ere gehiago dira. Bere garaian grafiko bat egin nuen eta bi metroko zabalera hartu zuen. Utzi egin behar izan nuen, sekulako tamaina hartzen ari baitzen. Liburuaren helburuetako bat jendea halako lanak egitera animatzea da. Ni ez naiz historialaria, ezta genealogista ere, baina egin dut. Horrek edonork egin dezakeela erakusten du. Ni jatorrizko tokietara gutunak idazten hasi nintzen, baina egun edonork du ordenadore bidez munduko beste puntan dagoenarekin harremanetan jartzeko aukera.

Zuk zeuk argitaratu al duzu liburua?

Almonacid de la Sierra herriko Udalaren laguntza jaso dut. Lagundu nahi zuten

galdetu nien eta inprimatzea eskaini zidaten. 1.300 liburu argitaratu dira. Oparituko egingo ditut: niri ez zidaten ezer kobratu eta nik ere ez diot inori kobratuko. Esan bezala, nire helburu

*“Aurrekoetako baten
izena Apolinaris zen:
bera da azken 500
urteotan Gipuzkoan izen
hori izan duen bakarra”*

bakarra beste batzuk ere euren jatorriaren bila hastea eta informazioa trukatzeari da.

Liburuan informazio bilaketa prozesuaren berri ematen duzula esan duzu. Ba

al dago bereziki gogoratzen duzun pasadizoren bat?

Nire 10. aitona izena Apolinaris zen. Izen oso arraroa da. Azken 500 urteotan, Gipuzkoa osoan, bera da izen hori izan duen bakarra. Ez dakit zergatik jarri zioten izen hori. Erromatarren legio batzuek izen berbera izan zuten, Apolo jainkoaren omenez. Benetako izena Apolinario zuela pentsa daiteke, baina Gipuzkoan Apolinario bakarra ageri da azken 500 urteotan. Apolinaris bakarra ezagutzen dut: nire biloba. Nire semeak izen hori jarri zion bere 11. aitona oroimenez. Beste pasadizo bat Aranburuetxeberri baserriarekin lotua dago. Lan honekin hasi nintzenean euskaraz ez nekien eta, beraz, ez nekien Aranburuetxeberri hitzaren esanahia zein zen. Ez nekien herri bat ote zen, baserria ote zen... Halako batean, Beasaindik bidalitako informazioa begi-

ratzen ari nintzela, anaia zaharrenak baserria oinordetzan hartu zuela eta bere anaiei diru kopuru bat eman ziela irakurri nuen. Bertan nire 7. aitona izena agertzen zen. Hala ondorioztatu nuen baserri hartatik gatzela.

Nola hartu zintuzten baserrikoek?

Gutuna idatzi nien eta halako batean Maria Teresa Etxezarretaren deia jaso nuen eta nire esanetara zegoela jakinarazi zidan. Ni hona lehenengoz etorri aurretik, nire etxean Argentinara joan zen Maria Teresaren alaba bat hartu nuen. Nire lana erakutsi nion eta 2007an hona etorri nintzen lehenengoz. Baserria ezagutzeak sekulako zirrara eragin zidan: duela 500 urte nire arbaso bat leiho hartatik bertatik paisaia hura bera begiratzen ari zela pentsatzea... Urte hauetan guztietan inguru hura eta baserria apenas aldatu dira. Dena den, egungo jabeak ez dira nire senitartekoak.

Zumarragan senitartekorik ba al duzu?

Nire 11. aitona Beasainera joan zen eta bere oinordekoak ez ziren Zumarragara itzuli. Nire 11. aitona ez zen anaia zaharrena eta, beraz, baserria utzi behar izan zuen. Beasaingo baserri bat errentan hartu zuen eta ia 100 urte eman zituzten bertan: 1703tik 1793ra. Nire herenaitona Zaragozara joan zen frantziarren aurka borrokatzera eta han gelditu zen. Anaia zaharrena ez zenez, ez zuen zentzu handirik Beasainera itzultzea. Upelgilea zen eta ardoa egiten den inguru batean bizi izan zen. Upelak eginez dirua irabazi zuen eta upeltegia ireki zuen. Bere seme Albertok, nire birraitonak, negozioa izugarri handitu zuen. Ardoa esportatzen zuen eta diru dezente irabazi zuen. Liburuan hau guztia ere kontatzen dut.

Noiz joan zen zure familia Argentinara?

Nire aitona eta nire aita Almonacid de la Sierran jaio ziren, baina 1909an aitona familia Argentinara eramane zuen. Hemen garai gogorra bizi zuten, birraitona hil zenean herentzia zazpitan zatitu behar izan zuten, izurrite batek mahasiak txikitu zituen...

Zer egin zuen zure aitona Argentinan?

Dirua zuen eta ez zuen lan egin beharrik izan, baina semeek arlo desberdinetan lan egin zuten. Aitak 45 urte eman zituen ur eta estolderia arloan. Hainbat enpresa zuzendu zituen Argentinako toki ezberdinetan. Nik, berriz, kanpo-merkataritzan lan egiten dut. Buenos Aires iparraldean bizi naiz.

Zure abizenaz harro zaude.

Aranburu toponimoa denez, toki askotan aurki daiteke abizen hau. Nire adarra Zumarragatik dator. Izan ere, aurkitu ditudan arbaso zaharrenak Zumarragoak dira. Denok Afrikatik gatzela esaten dute, baina hori urrun samar gelditzen da.

“Aranburuetxeberri

baserrian sartzea

zirrarragarria izan zen:

han ugaldutako

geneak daramatzat!”

Zure arbasoren baten lana azpimarrituko al zenuke?

Batzuk Zumarragan alkate izan ziren. Aranburutarrek herriko ekimenetan parte hartzen zuten eta erabaki garrantzitsuetan

zeresana izan zuten. Euretako bat eskribaua izan zen.

Zumarragara lehen aldiz 2007an etorri zinela esan duzu. Zer diozu herriaz?

Inguru hau oso polita da. Gure herrialdea oso handia da eta han herriak ez daude bata bestearengandik horren gertu. Lursail handiak daudenez, mendian ez da eraikitzen. Gainera, hementeko eraikinak hangoekin alderatuz ezberdinak dira. Argentinak independentzia duela 200 urte lortu zuela eta hango herri batzuek 100 urte besterik ez dituztela kontuan izan behar da. Bestalde, hemen oso ondo hartu ninduten. Antonio Prada agirizainarengana jo nuen eta berehala alkateak ezagutu egin nahi ninduela esan zuen. Une horietan sentitzen dena hitzez azaltzea oso zaila da. Esan bezala, baserrian sartzea zirrarragarria izan zen. Han ugaldutako geneak daramatzat! Gainera, bertara heltzean, nire helburua lortu nuen: jatorrizko etxea aurkitzea. Urteak neramatzan nire arbasoen jaiotetxeaz eta bizimoduaz pentsatzen eta azkenean euren bizitokia aurkitzea lortu nuen. Liburuan sentimendu horiek guztiak azaldu ditut.

Lana bukatutzat eman al duzu?

Ez, hau ez baita sekula bukatzen. Erdi Aroko nire arbasoei buruzko nobela historikoa idatzi nahi dut, baina horretarako askoz ere gehiago ikasi behar dut oraindik hemengo bizimoduari buruz. Oraingoz, baserriko bizimoduari buruzko ipuin batzuk idatzi ditut.

Zer dio zure emazteak?

Bere arbasoak Iparraldekoak direnez, pozik etortzen da. Etortzen garen bakoitzean Behe Nafarrera ere joaten gara.

Jose Maria Busca Isusi: Zumarragako Argiñano

Azaroko lehen asteburuan Busca Isusiren oroimenezko buzkantza lehiaketa izango da. Zumarragar hau gastronomo handia izan zen eta kale bat ere badu, baina ziur gazte askok ez dakitela nor den. Carmen Agirre alargunarekin izan gara bere senarra zenari buruz hitz egiten.

Jose Maria Busca Isusi.



Jose Maria Busca Isusi 1916an jaio zen eta 1986an zendu zen. Trenbidearen eraikuntzan lan egitera etorri eta Ezkio-Itsasoko neska batekin ezkondu zen italiar baten biloba zen. Erreportaje honetako protagonistak Natur Zientziak eta Bromotologia ikasketak egin zituen. Jendeak ondo jatea nahi zuen eta bere liburuek, egunkarietako artikuluek eta irratsaioek arrakasta handia izan zuten etxekoandreen artean. Luis del Olmoren *Protagonistas* saioan kolaboratzen zuen eta Del Olmok Busca Isusi Argiñanoren aurrekoa izan zela idatzi zuen.

Gainera, Zumarragako buzkantza lehiaketaren sortzailea izan zen. Carmen Agirre bere alargunak gazteak zirenean Mordo eta Unanue tabernetako buzkantzek arrakasta itzela zutela oroitzen du. "Buscatarren etxean ere egiten ziren, Legution hazten zituzten ardiak odolarekin. Nire senarrak buzkantza onenak Zumarragakoak zirela, eta Zumarragakoaren artean bere etxekoak

esaten zuen. Nik bere izebekin ikasi nuen egiten”, dio.

Hauen eta bere amaren eraginez maite zuen Busca Isusik gastronomia. “Bere ama eta izebak sukaldari oso onak ziren. Azken hauek sukaldari batek Batzokian ematen zituen eskoletara joaten ziren eta errezeten eta apunteen koadernoak gordeta dugu oraindik”. Dena den, argi utzi nahi du bere senarra ez zela sukaldaria. “Bere kezka jendeari zer jaten zuen eta zer komeni zitzaion jakinaraztea zen”.

Helburu horrekin hainbat liburu eta ehunka artikulu idatzi eta irratian aholkuak eskaini zituen. Etxera etxekoandreek ida-

Enpresa munduan ere aitzindaria izan zen.

Martzillan produktu

izoztuen enpresa ireki zuen: estatuko lehena

tzitako ehunka gutun heltzen ziren. Carmen Agirrek ere bere senarrak komunikabideetan ematen zituen aholkuak jarraitzen zituen. “Haurrei arrain urdina ematen nien. Kontuan izan behar da garai hartan ez zuela egungo ospe ona. Etxeko sukaldaria ni nintzen, baina oso ondo nekien berari eta bederlatzi seme-alabei zer gustatzen zitzaion”.

Usoa Busca alabak etxera sartu zen lehen ekilore-olio botila zuzenean zakarrontzira joan zela eta edozein ozpin ere ez zitzaiola gustatzen oroitzen du. “Gustukoa ez zuenari buruz sukaldea

Euskal gastronomoen bilera, 1978an Ainhoan. Ezkerretik eskuinera: Cousseau, Lapitz eta Busca Isusi. Argazkia: Iñaki Linazasoro.



garbitzeko bakarrik balio zuela esaten zuen. Orain denok erabiltzen ditugu oliba-olioa eta ozpin ona”.

Enpresa munduan ere aitzindaria izan zen. Martzillan produktu izoztuen enpresa ireki zuen: estatuko lehena. “Hemen ez zegoen ontziratzeko materialik eta bere anaia Frantziara joaten zen horren bila”, aipatu du Agirrek.

Busca Isusi ez zen bidaiaria zalea izan, baina mundu osoko argitalpenak lortzen zituen eta guztiak irakurtzen zituen. Teoria ikasi ondoren praktikara pasatzen zen. Frantziarren pausoak jarraituz, sagardoa destilatzea erabaki zuen. Eurek *Calvados* deitzen diote eta zumarragarrik *Sagardos* izena jarri zion. “Sagardogile batek kupeletan gelditzen zen sagardo hondarra gordetzen zion eta berak Donostiara irratian hitz egitera joaten zen bakoitzean jaso egiten zuen. Etxeko bainu-gela nola uzten zuen ikustekoa zen!”, dio bere alargunak.

“Etxe guztian sekulako alkohol usaina izaten zen”, oroitzen du bere alabak.

Jenioa zen eta, gainontzeko jenio guztiei bezala, ez zitzaion batera gustatzen lanean ari zenean inork molestatzea. “Bere kasa ibiltzen zen, mesede bat eskatzen zioten bakoitzean baiezkoa ematen zuen. Sekula ez zuen sosik eskatu hitzaldien truke eta etxean mundu guztia hartu zuen. Gregorio Marañon etxean izan zen eta Jose Mari Gorrotxategi, Periko Txueka, Juanito Zelaia... lagunak zituen”, dio Usoa Buscak.

Bere amak azken honek eta Busca Isusik *Municheko itun gaiztoan* parte hartu zutela gogoratzen du. “Europar Mugimenduak deituta joan ziren eta itzuli zirenean izardun bandera egitea eskatu zidan”. Alabak bidaiaria haren ondoren atxilotu egin zutela eta goiz guztia Donostian izan zutela gehitu du. Bazkalordurako askatu zuten, noski.

Irakurleek 7,7 puntu eman dizkiote 'Otamotz' aldizkariari

Aztiker enpresak herritarrek Otamotz aldizkariari eta atari digitalari buruz duten iritzia jaso zuen udaberrian. Zintzo Mintzo euskaltzale elkarte oso gustura dago jasotako emaitzekin bi komunikabideak herrian ezagunak eta estimatuak baitira. Orain, jasotako iradokizunak oinarri hartuta, aldizkaria eta ataria hobetzen ahaleginduko da. Eskerrik asko Aztikerrek egindako galderak erantzun zenituzten guztiei.

Urretxu eta Zumarragan 15 urtetik gorako 14.576 lagun bizi dira eta Aztikerrek 900 herritarren iritzia jaso zituen apirilaren 6tik 19ra. Otamotzen ezagutzari eta irakurtzeko ohiturari dagokionez, %80,8ak aldizkaria ezagutzen du eta %60,9ak inoiz irakurri edo gainbegiratu du. Azken hauen artean, %59,2ak azken alea irakurri du. %20ak ez du azken alea irakurri, baina bai azken hiruhilekoan argitaratuetako bat. %2,7ak, berriz, azken urtean ez du irakurri.

Ikerketa enpresak aldizkaria irakurtzen ematen duten denborari buruz ere galdetu zien inkestatuei. Otamotz aldizkaria irakurri ohi duten herritarren erdiak 20 minutu edo gutxiago ematen du horretan. Heren batek 21 eta 30 minutu bitartean ematen du eta %20ak ordu erdi baino gehiago.

Hala, 15 urtetik gorako herritar guztiak

kontuan hartuta, erdiak ez du ezagutzen edo ez du inoiz irakurri, bostetik batek ez du azken alea irakurri eta %30ak azken hilabeteko Otamotz irakurri du. Kopuru absolutuen estrapolazioa eginez gero, 15 urtetik gorako 11.774 herritarrek aldizkaria ezagutzen dute, 7.158k inoiz irakurri edo gainbegiratu dute, 5.656k azken hiruhilabetekoan irakurri dute eta 4.227k azken alea irakurri dute. Hala, ale bakoitzak 4.200 irakurle baino gehiago ditu. Kontuan izan behar da tirada 1.500ekoa dela. Beraz, ale bakoitzeko hiru irakurle daude.

Aztikerrek beste ondorio batzuk ere ateratu ditu. Esate baterako, Otamotz ezagunagoa eta irakurriagoa da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino. Gainera, emakumezkoek denbora gehiago ematen dute aldizkaria irakurtzen.

Adin tarte guztietara ondo heltzen da. Dena den, ezagutu ez edo inoiz irakurri ez dutenak gazteen artean dira gutxien (%35,3) eta zaharren artean gehien. Oro har, irakurtzeko ohiturak behera egiten du adinean gora egin ahala. Ikasketa mailari dagokionez, alde nabarmenak daude: ikasketa mailan gora egin ahala gora egiten du ezagutzak eta irakurketak. Hizkuntza gaitasunaren arabera ere alde esanguratsuak ikusten dira: zenbat eta euskara gaitasun handiagoa, orduan eta gehiago dira irakurleak eta denbora luzeagoz irakurtzen dute. Baina aipagarria da aldizkaria ia talde guztietara heltzen dela: erdaldunen %40ak ezagutzen du.

Irakurleen iritzia dagokionez, aldizkaria inoiz irakurri duteneni 0 eta 10 bitarteko balorazioa eskatu zitzaie eta 7,7 da bataz besteko puntuazioa: oso ongi

bat, beraz. %0,5ak eskas eman dio (3 edo 4 puntu), %1ek nahiko, %4,5ek ongi, %83,7k oso ongi eta %10,3ak bikain.

Zumarragarrei eta urretxuarrei Otamotz argitaratzeak ekartzen duena baloratze-ko ere eskatu zitzaizen eta aldizkaria inoiz irakurri edo gainbegiratu dutenen %99,3ak Urretxu eta Zumarragarentzat Otamotz izatea gauza oso ona edo ona da. %0,7ak ez dela ona eta ez txarra uste du eta bakar batek ere ez zuen erantzun txarra edo oso txarra denik.

Bestalde, irakurle gehienek (%74,5) inolako arazorik gabe ulertzen dute erabiltzen den euskara. %25,5ak ulertzeko zailtasuna adierazten du. Ildo editorialari buruz ere galdetu zen. Gehiengoak (%96,5) albisteen trataera objektiboa dela uste du. Hala, %93,8ak aldizkari plurala dela dio eta %6,2ak lerrotua

dela. Ildo berean, %94,2ak udalei buruzko informazioa objektibotasunez jorratzen dela uste du. %5,8ak, berriz, udalen aldeko jarrera leporatzen dio Otamotzi. Inork ez du uste udalen aurkakoa denik.

%99'3ak Urretxu eta

Zumarragarentzat

'Otamotz' izatea gauza


oso ona edo ona dela

esan du

Irakurleek euren gaiekiko interes maila zein den azaltzeko aukera ere izan zuten. Albisteez, pertsonaiek, gizarte

gaiek, kulturak, aspaldiko kontuek eta euskararekin lotutakoek pizten dute arreta gehien. Interes gutxien pizten duen gaia, berriz, politika da. Atalei dagokienez, gustukoena argazki bilduma, kale inkesta eta elkarrizketa luzeak dira. Iritzi artikulua dira balorazio eskasena lortzen dutenak.


Krisi garaian egonik, ezin finantzaketa ahaztu. Garai gogorak bizi ditugun arren, irakurleak aldizkariaren truke dirua ordaintzeko prest agertu dira. Urtean 30 euro ordaintzeko prest egongo liratekeen galdetu zitzaizen eta %46,3 prest agertu da. %18,2ak ez luke kopuru hori ordainduko eta %33,3ak ez daki zer egingo lukeen. Bestalde, aldizkaria ezagutzen duten ia herritar guztiek (%97,8) erakunde publikoek aldizkaria diruz laguntzearen aldeko iritzia adierazi dute.



Mikel Rodriguez eta Asier Intsausti: pilotari gazteen eredu

Esku pilota kirol gogorra da eta profesional mailara iristea lortzen ez duten gehienek oso gaztetan uzten dute. Mikel Rodriguez eta Asier Intsausti zumarragarrek, ordea, hamar urte bete dituzte dagoeneko senior mailan eta luzaroan jarraitzeko asmoa dute. Denbora honetan guztian elkarrekin aritu dira.

Mikel Rodriguez eta Asier Intsausti Beloki pilotalekuan.



Asier Intsaustik 29 urte ditu eta Mikel Rodriguezek, berriz, 28. Azken hau bere anaiaren eraginez hasi zen. “Anaiaren beti pilotalekuan ibili da eta ni ere etortzen hasi nintzen. Gustatu egin zitzaidan”. Intsaustik oroimen txarra duela dio, baina lehen pilotakadak Ederrenan eman zituela gogoratzen du. “Lagunak hara joaten hasi ziren. Ondoren, Zumarragara etorri nintzen”.

Pilotan jokatzeko ari zirenean Beloki pilotalekua oraindik eraiki gabe zegoen. Hori dela eta, Rodriguezek La Salle-Legazpi ikastetxeko frontoi txikian eman zituen lehen pilotakadak. Lehen maisua Xabier Goñi zena izan zuen. “Ondoren Gartzandiarekin, Kerejetarekin eta Urtzelairekin aritu nintzen”. Intsausti ere hiru hauen ikaslea izan zen.

Umetatik ezagutzen dute elkar, baina senior mailara pasatu zirenean adiskidetu ziren. “Pilotalekuan beste ume asko ibiltzen ginen eta ez genuen harreman

berezirik. Mikel senior mailara pasatu zenean elkarrekin jarri gintuzten eta ordutik lagunak gara”, dio Intsaustik.

Izan ere, eurek ondo dioten moduan, gazte askok jubencil mailan uzten dute pilota. “Alde batetik Mikel anaia Gorka eta Pueyo zeuden eta bestetik gu”. Rodriguez aurrelaria da eta Intsausti atzelaria. Rodriguezek bere bikotekidea “bizi-asegurua” dela dio. Intsaustik bere laguna senior mailan hasi zenean egun baino maila kaxkarragoa zuela azpimarratu du. “10 urte hauetan nik apenas hobetu dut, baina berak izugarri egin du hobera. Bere armarik onena bi pareta da”.

Hamar urte hauetan jokaldi hau askotan egiteko aukera izan du. Ez dakite zenbat partida jokatu dituzten elkarrekin. “Denboraldi hasieran federazioak antolatzen dituen txapelketak jokatzeko ditugu: Gipuzkoako txapelketa eta Udaberri txapelketa. Herrietan antolatutakoetan ere parte hartzen dugu: Usurbil, Irun, Añorga...”.

Gipuzkoan lau maila daude: Elite, Lehena, Bigarrena eta Hirugarrena. Zumarragako bikotea Lehen Mailan dago. Duela zazpi urte Udaberri txapelketa irabazi zuten, baina ez da hura euren oroitzen onena. “Udaberri txapelketan Euskal Herri mailakora sailkatzeari ez dutenek jokatzeko dute. Bolada txarrak eduki izan ditugu, nahiz eta beti antzera entrenatu dugun, baina onak ere bai”. Rodriguezek Zabala eta Jauregiren aurka Getarian jokatuako partida bat gogoratzen du bereziki. Intsaustik, berriz, duela urte batzuetako Zaramagako txapelketa. “Mikelek sekulako maila eman zuen eta finalerdietara heldu ginen”.



Bi pilotariak Rodriguezen aitarekin.

Profesional mailara heldu diren pilotarien aurka jokatu dute. Apezetxea, Eulate eta Baleztena dira boteprontoan gogoratzen dituztenak. Egundun euren aurka aritzen direnetako batzuk ere profesionalak izango dira hemendik urte batzuetara. Dagoeneko Rodriguez eta Intsaustiren arerio gehienak gazteagoak dira, baina zumarragarrek lana ematen diete. “Asko ez ditugu ezagutzen, gu baino askoz ere gazteagoak baitira”.


Bikote beteranoekin indarrak neurtzea onuragarria da gazteentzat, beti baitago zaharragoengandik zer ikasi. “Gazteen aurka jokatzeari polita da batzuetan: guk baino dohain hobeak dituzte, baina kosta egiten zaie guri irabaztea. Duela aste batzuk, Tolosan, 12 eta 1 galtzen hasi ginen. Gureari eutsi genion, jo eta jo, eta irabaztea lortu genuen ia. Besteek lehertuta bukatu zuten, botaka. Gazte askok sekulako sasoia eta dohainak dituzte, baina ez dakite partida luzeak jokatzeko. Partidak irabazteko izerdi egin behar dela ikastea ona da. Dena den, batzuetan sekulako jipoiak ematen dizkigute”, aitortu du Intsaustik.

Eurak pilotari gogorak dira, eskola

zaharrekoak, eta euren gustukoak ere halakoak dira. Mikel Rodriguezen pilotari kuttuna Ruben Beloki nafarra da eta Asier Intsaustik, berriz, Mikel Unanuek eta Jokin Errastik bikote bikaina osatzen zutela dio.

Afizionatu mailan era badaude eskola zaharreko pilotariak, Rodriguez eta Intsausti ez dira beterano bakarrak. “Gutxi batzuk badaude oraindik, baina 40 urte baino gehiagokoak ere. Dena den, ez dira asko. Askok, lanean hasten direnean, esku pilota uzten dute”. Eurek pilotalekura joaten jarraitzeko asmoa dute. “Oraindik ez gara aspertu. Futbolari beteranoek urtetik urtera berri-tzen dute kontratua eta guk ere hala egiten dugu”, azaldu du Rodriguezek. “Pilotalekuan gustura gaude eta, gainera, Beloki taldeko zuzendaritzako kideak gara”, gehitu du Intsaustik.

Zumarragako pilotalekura haur gutxi joaten da eta euren helburua gazteak erakartzeko da. “Duela zazpi urte frontoia beteta egoten zen eta egun 14 bat haur ditugu. Ea horri buelta ematea lortzen dugun. Hori da zuzendaritza berriaren helburu nagusia”, amaitu dute.



Alex Areizaga

Informatika

QR kodeak

Hilabete honetako gomendiorako lan kon-tuengatik egiten ari naizen ikastaro batean ezagutu berri dudan bitxikeria erabiliko dut: QR kodea. Barra kodearen antzekoak, QR kodeak geroz eta ezagunagoak egingo zaizkigu egunerokotasunean. QR kodeek ez dute barra bertikalik, euren itxura egin gabeko sudoku baten modukoa da. Kode hauek sortzeko web ugari aurki daitezke sarean (Googlen bilaketa simple bat egin ez) eta irakurri ahal izateko mugikorrean aplikazio bat instalatu besterik ez da egin behar (reader.kaywa.com helbidean deskargatu daitezke mugikorretarako aplikazioak). Horrela, koadro zuriz eta beltzez osatutako irudi hauek sareko helbideak, testuak, irudiak edota bestelako informazioa gorde dezakete mugikorrek sartu diogun aplikazio honekin zuzenean irakurri ahal duena. Irakurri ahal izateko gainera, nahikoa da mobileko kamerarekin irudia enfokatzea, eta argazkia egin gabe ere irakurriko du gure mugikorrek kode hau. Hasi fijasen, kode hauek leku askotan hasi baitira agertzen.



Izaro Soraluze

Osasuna

Zorrien aurkako borroka

Zorriak intsektu parasitoak dira. Gizakiaren odola xurgatzen dute eta horri esker bizi dira. Bila arituta ere, askotan zorriak ikustea ez da erraza izaten. Bere arrautzak (bartzak), ordea, bai. Ilean itsatsita egoten dira, batez ere garondo inguruan eta belarrien atzean. Pertsona batetik bestera erraz pasatzen dira: garbi dagoen ilera joaten dira. Zorriak kentzeko produktu on bat aukeratu behar da, lozio erakoa ahal bada. Ilea lehorrean aplikatu (ilea garbituz gero, intsektizidaren fijasioa gutxitzen da) eta ondoren orrazi fin-fina pasatu. Burua txanpu arruntekin garbitu eta ilea berez lehortzen utzi (ez erabili lehorgailua, intsektizida inaktibatzen baitu). Erabilitako tresna guztiak ur irekinetan garbitu desinfektatzeko. Tratamendua bost-hamar egunetan errepikatzea gomendatzen da. Intsektizidak ez dira sekula prebentziorako erabiliko. Prebenitzeko produktu ezberdinak merkaturatu diren arren, aukera onena ile larrua egunero orrazi estuarekin begiratzea da zorri edo bartzik dagoen ikusteko.

Atzerapena

Azkena ematen digutenetik ailegatzen denera... Ez legoke gaizki, atzeratu orde, barkatu egingo baligute heriotza, edo bizona. Zer diozu zuk, Melvin? Atzeratzea agonia luzatzea da. Bezperatan jakin dugu prorroga eman digutela. Zertarako? Zu edo ni izango garen erabakitzeke. Partida irabazteko aukerarik ez badugu soberan dago niretzat prorroga. Hilko gintuen sendagaia. Posible ote da? Hilko gintuen sendagaia. Hil eta sendatu. Poemak presoekin. Gutxi barru heriotzara eramango gintuen kimikoaren osagai bat bukatu omen zaio enpresa ekoizleari. Ezingo omen du epe luzean eskuratu. Bihar hil beharrean datorren astean hilko gaituzte. Astiro doa denbora hemen. Bitarte luzean gu azkenaren zain. Azkena hasten.

Konturatzen zara, Melvin? Zabaldu da mezua: korridorean bakarrarentzako dosia dago. Zu ala ni izango gara. Biotako batek oso gertu du azkena. Besteak urrutixeago. Gu hiltzeko droga hilgarria ekoizten dutenek ez omen dute heriotza zigorrarekin erlazioa ditzaten nahi. Hainbeste axola ote du horrek? Hiltzen duten sendagaiak ez dute haienak izaterik nahi. Ez gaituzte hilko, baina haien konpetentziak hil gaitzan utziko dute. Eta lehenago edo beranduago biok hilko gaituzte. Azkena eman ziguten eta atzerapenez bada ere beteko dute. Biotako bat izango da, eta albistea bereziki irtengo da prentsan. Zu edo ni. Eta horretarako beste epaiketa bat izango dugu. Nik, Melvin, uste dut ezin dezakedala berriz jasan: pertsona bat, demagun epailea, berriro nire heriotza-zigorra berresten. Zertan oinarrituko dira orain biotan aurrena aukeratzeko? Jokabide okerreduena, abokatu garestienak defendatzen duena, zaharrena... Agian, noren heriotza-zigorra izan zen gogorragoa erabaki beharko dute. Heriotza-zigorren artean gogorrak eta oso gogorrak egon badaitezke! Berriro poesia presoekin.

Ez erantzun Melvin. Neure buruari galdezka ari nintzen. Hemen bakar-bakarrik gaude.

Hasieran idazten zidaten lagunek. Txandaka. Gero, tartean behin idazten zidan haietakoren batek. Urtearen erre-

pasoa egiteko-edo. Haien abenturak kontaktzen zizkidaten. Ez zidaten, ordea, galderarik egiten. Pentsatuko zuten nirea beti zela berdina. Eta nitaz erruki nahiago izango zuten nire existentzia triste hitzetan jartzera ez behartu. Patioan ere oso galdera gutxi egiten dizkiogu elkarri. Hitz hutsetan geratzen da dena hemen.

Bisitak urriak ziren hasieran. Oso epe laburrean desagertu ziren. Ni betirako ekarri ninduten hona. Ingurukoek, maite nindutenek, badakite ez naizela bueltatuko. Prorroga odolusten uztea da. Hilabete batzuetako kondena. Melvin, pentsatu duzu inoiz ea zergatik ez diguten hemen barruan elkar hiltzen uzten? Akaso onena litzateke.

Hasieran, iritsi berritan, saiatzen zara zeure burua aurkezten. Luzerako bidelagun izango dituzu, ezagutu nahi dituzu. Batez ere ezagutu zaitzaten da lortu nahi duzuna. Gutxira, behar beste ezagutzen dituzula iruditzen zaizu. Eta ez duzu gehiago ezagutu zaitzaten nahi. Denbora gehiena ziegan pasatzen duzu. Horrela beti eta betirako. Geure buruekin bakeak egin ditzagun izango da!

Egunean zehar ere hasieran dago indarra. Goizeko seieta pizten dira argiak, zazpietan txanden aldaketa dator. Eta hori da eguneko gertakizun bakarra. Egunero hasten da. Baina hemen, egunero hasten da bukatzen. Ulertzen didazu, Melvin? Inporta al du bada ulertzeak? Ez duzu erantzun beharrik. Zu ala ni. Ni prest nago. Agurtu ditut denak. Banan-banan agurtu ditut eskutitez egindako lagun berriak. Bigarren bizitzakoak. Hona etorri aurretik nituenei komunikabideetatik egingo diet agur.

Amaia Artolazabal Amilleta

www.otamotz.com/index.php Web orrian ipuina osorik irakur dezakezue, *Aldizkaria* saileko *Ipuinak* atalean.

Aritz Egea

Aritz Egea urretxuarrak 26 urte ditu eta ikastolan eta lizeoan egin zituen oinarrizko ikasketak. - Ondoren Mondragon Unibertsitatean Injeniaritza ikasi zuen eta egun Doktoregoa egiten ari da. Kirolzale amorratua da: mutikotan atletismoan aritu zen, ondoren txirrindularia izan zen eta azken urteotan triatloian maila bikaina ematen ari da. Urrian Hawaiko proba ospetsuan parte hartu du, Jon Azpiazu zumarragarrarekin batera. Egeak 9 ordu eta 22 minutu bakarrik behar izan zituen igeriketan lau kilometro, bizikletan 180 eta korrika 42 egiteko.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Arkitektoa.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Kirola egitea.

Bizitzeko toki bat?

Edozein lekutara moldatzen naiz, baina Zumarragan ez bizitzea gustatuko litzaidake.

Triatloiko hiru kiroletatik, zein duzu gustukoena?

Txirrindularitza.

Zeinetan moldatzen zara hobeto?

Korrika.

Gustuko korrikalaria?

Beltzak orokorrean. Azkar korrika egiteaz gain, estilo polita dute. Zuriok sekula ez dugu horren azkar eta polit egingo.

Gustuko txirrindularia?

Armstrong, baita Tourra lehenengoz irabazi aurretik ere. Minbizia izan zuen garaian bere inguruko informazioa eskuratu nuen eta ordutik gustuko dut. Askotan suertatuko zait oraindik eztabaidetan bere alde egitea.

Gustuko igerilaria?

Ian Thorpe. Igeriketa ikustea beti gustatu zait.

Ileheriak ala beltzaranak?


Denak.

Egindako azken operaria?

Hawaitik ekarri ditudan gauzak.

Eta jasotakoa?

Fitz Roy espedizioko kamiseta bat.



Data bat?

Ez naiz data zalea, baina ziur Hawaiko Iron Man-aren eguna bizitza osoan gogoratuko dudala.

Mutil eta neska izen bana?

'Tz' duten guztiak gustatzen zaizkit, baina nire semeetako batek Alejandro izena eramango du. Izan ere, familiako ohitura da. Ni neu Aritz Imanol Alejandro naiz.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Paperean bat bera ere ez. Internetez ahal dudan guztiak.

Gustuko telebista saioa?

Erreportaje saioak atsegin ditut, *Callejeros* modukoak.

Bereziki gorroto duzuna?

Egia esan, telebistak orokorrean ez du ezertarako balio.

Pelikula bat?

Pelikula asko ditut gustuko, baina bat esatekotan *Braveheart*.

Liburu bat?

Los pilares de la tierra.

Abesti bat?

Mikel Laboaren *Geure bazterrak*.

Soinu bat?

Bat ere ez bereziki.

Usain bat?

Zapatila berriena.

Janari bat?

Pasta.

Ura ala...

Garagardoa. Gehien elikatzen duen edaria da.



Construcciones **MENDIOLA**

Labeaga, 7
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Tf. 943 72 05 11
Fax: 943 72 44 10
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Etxebizitzen eraikuntza
Industria pabilioiak
Urbanizazio lanak

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK
PREBENTZIOA
DU HELBURU**



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)

☎ 943 72 41 00

e-mail: administracion1@premank.com

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09

e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA